BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

863

4/2014 EBAZPENA, urtarrilaren 15ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Galdakao (Bizkaia) Formica Española, S.A enpresako instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana eraginik gabe uzteko dena Erabakia, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutakoa, argitara ematea xedatzen duena.

2014ko urtarrilaren 14ean egindako bileran, Jaurlaritzaren Kontseiluak honako erabaki hau onartu zuen: Galdakao (Bizkaia) Formica Española, S.A enpresako instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana eraginik gabe uzteko den Erabakia, eta horri beharrezko publikotasuna emateko, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulua bakarra.– Galdakao (Bizkaia) Formica Española, S.A enpresako instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana eraginik gabe uzteko den Erabakia, eranskinean jasotzen dena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 15a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
SANTIAGO LARRAZABAL BASAÑEZ.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URTARRILAREN 14KO 4/2014 EBAZPENAREN ERANSKINA

ERABAKIA: GALDAKAO (BIZKAIA) FORMICA ESPAÑOLA, S.A ENPRESAKO INSTALAZIOEN KANPO LARRIALDIETAKO PLANA ERAGINIK GABE UZTEKO DENA

Galdakaoko (Bizkaia) Formica Española, S.A. enpresaren instalazioek badute Kanpo Larrialdietako Plana, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko urriaren 24ko Erabakiaren bidez onartua, izan ere, uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretuan jasotako arautegiak eta 119/2005 eta 948/2005 errege-dekretuek eragiten baitiote.

Instalazio horiek behin betiko ixteko Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailetik jakinarazpena jaso da, Segurtasuneko sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aurretik hala erabakita.

ERABAKIA

«Lehenengoa.– Galdakaoko (Bizkaia) Formica Española, S.A. enpresaren instalazioen Kanpo Larrialdietako Plana indarrik gabe uztea, zein Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu baitzuen 2006ko urriaren 24an hartutako Erabakiz (2006ko abenduaren 18ko EHAA, 239. zenbakia). Izan ere, enpresa, instalazio horiek behin betiko itxita, kanpoko larrialdietako plana izan beharretik salbuetsita dago.

Bigarrena.– Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Idazkaritzak erabaki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua emango du».